



**Euskara, abertzaleen  
fokotik urrun?**



**LANBIDE  
HEZIKETA**  
FORMACIÓN  
PROFESIONAL

## Gure ikasleen bizipenak **Jon Vela**

**Ikasketak:** Goi mailako  
Fabrikazio Mekanikoko Diseinua,  
Mekatronika Industriala eta  
Mekatronikako espezializazioa.  
**Enpresa duala:** Danobat.  
**Lanbide Heziketa**



### **Nor da Jon?**

Jon Vela Fernandez de Jauregi naiz, elgoibatarra eta 23 urte ditut. Batxilergoa ikasi nuen eta gerora goi mailako Fabrikazio Mekanikoko Diseinua, Mekatronika Industriala eta Mekatronikako espezializazioa ikasi ditut, IMHn. Mekatronikako espezializazioa formatu Dualean egiten ari naiz Danobat enpresan. Nire zaletasunen artean kirola egitea daukat, batez ere eskalatzea, baina bidaiatzea eta lagunekin planak egitea ere gustuko ditut.

### **Zergatik aukeratu zenuen ikasketa horiek egitea?**

Jakin-mina piztu izan didan gaia izan da betidanik makinak erabiltzeko teknologiak ezagutzea, lanak antolatzea eta egin ahal izatea.

### **Zergatik aukeratu zenuen IMHn ikastea?**

Batetik, ikasketetan, teoria praktikarekin osatzen dutelako, eta bestetik, eskaintzen dituen baliabide-engarrik eta entzundakoengarrik.

### **Parte hartu duzu Erasmus praktketan? Zer da gehien gustatu zitzazuna?**

Diseinuko praktikak Erasmus bidez egitea erabaki nuen eta Esloveniara joan nintzen, baina Covid neurrien ondorioz, hiru asteren buruan etxera itzuli behar izan nintzen. Nahiz esperientzia laburra izan, oroitzapen onak ditut. Hango bizimodua eta kultura ikusteko aukera izan nuen, baina esperientzia hartatik zerbait aukeratu beharke banu han egindako lagunak esango nizuke.

### **Esan ahal diguzu zein den IMHn ikasten pasatako garaitik gehien gustatu zaizuna?**

Urte hauetan zehar egindako lagunak eta beraiekin ikasketetako erronkak gainditzea oso gogoan dut.

### **Zer asmo duzu datorren urterako?**

Datorren urtean lan egitea da nire asmoa. Hala ere, beti dago zerbait berria ikasteko eta dakizuna hobetzeko.

### **Zer esango zenioke zurea moduko zikloa ikasteko zalantzan dagoen pertsona bati?**

Nire ustez, garrantzitsuenak gustuko duzuna ikastea da. Probatzeko esango nioke, aukeratu duena gustuko ez badu, beti izango duelako aukera beste ikasketak batzuk egiteko, gustuko duena topatu arte.

## Informazio Saioak

Maiatzak 11 · 11:00

Maiatzak 15 · 17:00



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)

Edurne Izagirre

Psikologoa

## Ardura hartze/gabetzeak



***"Ardurak bere lekuan jartzeko arazoak ditugu, edo zuzenean eta ahoz gora esateko behintzat"***

**G**aur egun lidergotza politiko eta teknikoan daudenak hierarkia irmoan eta rol eta funtzio zurruntan oinarrituriko gizarte eredu baten seme-alabak dira, eta eurak estutu zituen eredu hori malgutzea izan dute helburu, askatasun sentipen baten bila. Baina, malgutze hori ez ote da gehiegizkoa izan? Guraso, irakasle eta agintari rola malgutzean, ardura eta betebeharren definizio eta kontzientzia ere malgutu da, bakoitzaren interpretazioari askatasuna emanez. Bizi berri dugun kanpainan ikusia dugu; jartzen al zaie mugarik diskurtsoei? Edo norbere iritzi askatasunaren izenean, oraindik gizarte moduan astindu ez dugun eredu nazi horren errausak berpizten utzi dugu?

Eta guzti hau aldatzeko eta eredia berritzeko inoiz baino gehiago pentsamendu iraultzailea behar dugunean, seme-alabak hezteko garaian gure helburu nagusia eskola eremura eta eremu sozialera egokitua egotea izan ohi da. Liberalismoa eta kapitalismoa eskutik doazen honetan, geure neskak Amsterdamgo auzo gorrian lez sareetako eskaparetean eskaintzera eta gure mutilak kirola eta produktibitate mugatzena bultzatuak direnean, ideia ona iruditzen al zaizue eredu honetara egokitzea izatea helburua?

Gurasoon buruan geure bizipen garrantzak dabilzalakoan nago, eta gure seme-alabek bizipen horiek izatea ekidin nahi dugula. Baina ez garena konturatzen da jada ez garela haur-nerabe hura, eta helduak izanda eta guraso gisa eskubideak eta baliabideak izanik, ahalko genukeela kontestua aldatzen saiatu. Esan nahi dudana zera da: geure seme-alabengan taldean ezberdin gisa kategorizatua izatera eramanez dezakeen ezaugarriren bat sumatuz gero garaia dugula ezberdintasunak aldarrikatzen hasteko, seme-alabari ezaugarri hori ezkututzen edo disimulatzen laguntzen saiatu beharrean. Bestela, inkontzienteki, jazarpena naturalizatzen ari gara.

Ardurak bere lekuan jartzeko arazoak ditugu, edo zuzenean eta ahoz gora esateko behintzat, eta ardura bere lekuan jartzen ez denean, norbaitzuk inpunitatez mozkortzen dira, eta hori adiktibo bihurtu daiteke.

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

**EAJ-PNVk eskerrak eman dizkie elgoibartarrei joan den apirilaren 21eko hauteskundeetan alderdian jarritako konfiantzagatik**

Elgoibarko Euzko Alderdi Jeltzaleak eskerrak eman dizkie Elgoibarko herritarrei joan den igandean, apirilak 21, izandako hauteskundeetan erakutsitako konfiantzagatik. EAJ-PNVk 2.162 boto jaso zituen guztira eta udalerriko alderdi bozkatuena izan zen.

Jeltzaleek babes horren garrantzia azpimarratu dute, aurkeztutako politika eta proposamenen babesa ez ezik, Elgoibarko ongizatearen eta etengabeko hobekuntzaren alde lan egiten jarraitzeko itzaropena eta ardura partekatua ere islatzen baitu. Umiltasunez eta konpromiso irmoz, EAJ-PNVk erakundeak indartzeko helburua berresten du, betiere zintotasunaren, gardentasunaren eta lankidetzaren ikuspegitik.

Hautestontzietan lortutako babesa udalerriko osoaren, Debabarrenaren eta Euskadiren, garapen lokalean eta aurrerapenean lagunduko duten proiektu eta ekimenekin aurrera jarraitzeko agindu argia dela uste du alderdiak. EAJ-PNVk

gizartearen sektore guztiekin batera lan egiteko konpromisoa berretsi du, egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko, betiere guztion onerako.

EAJ-PNVk berriz ere eskerrak eman dizkie hautesleei parte hartzeagatik eta alderdian konfiantza jartzeagatik.

Elgoibarko EAJ-PNV

<p><b>Osasun gida</b></p> <p>RPS 271/12</p> <p><b>ainhoa</b> fisioterapia</p> <p>Jausoro plaza, 6 behea Elgoibar</p> <p>943 531 953 669 565 745</p>	<p><b>aldaz</b> horts klinikak</p> <p>RPS233/13</p> <p><b>943 366 377</b></p> <p>San Bartolome, 22 20870 Elgoibar</p>	<p><b>NATUR HOUSE</b></p> <p><b>Ainara Iriondo Ansola</b></p> <p>GIZA EUKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA</p> <p>RPS 203/16</p> <p>Toribio Etxebarria, 22 Eibar</p> <p><b>677 551 850</b></p>	<p><b>fisioSmás</b></p> <p>Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea</p> <p>Trenbide kalea, 13</p> <p>943 740 191 / 667 953 628</p> <p>www.fisio-mas.com</p> <p>RPS 177/19</p>
<p>RPS 271/12</p> <p><b>ainhoa</b> fisioterapia</p> <p>Jausoro plaza, 6 behea Elgoibar</p> <p>943 531 953 669 565 745</p>	<p>RPS 183/12</p> <p><b>Uzuri</b> optika audio</p> <p>Elgoibar</p> <p><b>943 740 359</b></p> <p>Deba</p> <p><b>943 192 192</b></p>	<p><b>Jeku eder</b></p> <p>horts klinikak</p> <p>RPS 171/12</p> <p>Elena Herrero Lobo</p> <p>Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar</p> <p><b>943 530 053</b></p>	<p><b>federópticos</b></p> <p><b>ikus</b></p> <p>RPS 65/07</p> <p>San Bartolome, 10</p> <p>Tel.: 943 743 734</p>

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)


943 744 112

688 655 658



### Mintxetako futbol zelaia behar bezala erabiltzea denon ardura dela gogorarazi dute Udaletik:

"Azken aste hauetan futbol zelaia behar den bezala ez dela erabiltzen egiaztatu du Udalak. Pipa oskolak, plastikoak, latak eta bestelako hondakin batzuk zelaira botatzen dituzte hainbatek, eta horrek erabiltzaileen segurtasunari, osasunari, eta kirol-jarduerari kalte egin diezairoke. Horrez gain, instalazioetan txakurrak sartzen direla eta belar artifizialean beraien gorotzak daudela ikusi dugu. Hori dela eta, gogorarazi nahi dugu txakurrak ezin direla Mintxetako instalazioetan sartu. Herriko espazio publikoak zaintzea erantzukizun



partekatua da, eta guztion konpromiso eta parte-hartzea eskatzen du. Eskerrik asko, bide batez, erabiltzaile arduratsu eta errespetuzkoei, euren gizalagezko jokaeragatik".



### Igogailu aurreko aparkalekuak ikusmena oztopatzen du:

"Urazandira igotzen diren auto-gidariei ikusmena oztopatzen die igogailu aurreko aparkalekuak. Gidariak ez dute ikusten zebrabidea gurutzatzeko zain norbait dagoen, eta egoera arriskutsuak sortzen dira, bereziki, oinezkoentzat. Umeren bat igogailutik korrika irteten bada zebrabidera, autoreen batek harrapatu dezake, gorantz datorren gidariak ez duelako garaiz ikusiko. Aparkaleku hori kentzeak lagunduko luke, baina gidariei gune horretan polikiago ibiltzeko eskatuko nieke".



### San Lazaro egoitzako egoiliarrei botua ematea erraztu behar zaie:

"San Lazaro egoitzako egoiliarrek Pedro Mugurutzako eskoletara bideratu dituzte botoa ematera. Badakigu egoitza Toletxe kalean dagoela eta berez hori dela beraiek bozkatzeko lekua, baina eskola horretara iristeko irisgarritasun arazoak daude. Kontuan hartu behar da San Lazaro egoitzako egoiliar asko gurgildun aulkian ibiltzen direla, eta Pedro Mugurutzako eskolara iristeko dagoen

aldapa handiegia da gurgildun aulkian joateko. Bakarrik ezin dira joan inolaz ere, eta lagunduta ere oso arriskutsua da, bai jaisteko eta baita igotzeko ere. Gure kasuan, posta bidezko botoa erabili dugu, baina horretarako ere lanetik irten beharra izan dugu, eta beti ez da posible izaten. Hurrengo hauteskundeetarako egoera hau kontuan hartzea eskertuko genuke, eta posible bada, Aita Agirren edo Kultur Etxean bozkatzeko aukera ematea San Lazaroko bizilagunei, edo beste leku lau eta irisgarri batean".



Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?  
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira.  
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,  
edozein ehun konpondu ahal izateko:



Komertzioekin lan egiten dugu  
(etxeko ehungintzekin eta jantziekin)  
**TARIFA BEREZIAKI!**

**PUNUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOAK ETA KULOTEAK,  
LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

## Elgoibarko umek aisialdirako dituzten aukeren berri eman dute herriko eragileek



**E**lgoibarko Hezkuntza Mahaia antolatuta kalera irten ziren zapatuan herriko eragileak, eta aisialdirako dituzten aukerak aurkeztu zituzten Kalegoen plazan. Robotika, musika, dantza tailerra, pintura, eskubaloia, futbola, tenisa, txirrindularitza edota Aldenik Alden eta Kiribilduz bezalako ekimen komunitarioak aurkeztu zituzten. Hezkuntza Mahaia eta Elgoibarko Udala pozik agertu dira jardunaldiak izan zuten harrerarekin.



### Mausitxa baserria bisitatu dute 'Auzoko Familiak' egitasmoaren barruan

*Auzoko Familiak* egitasmoan parte hartzen ari diren familientzako irteera antolatu zuten domekarako, eta Mausitxa baserrira joan ziren. Gazta nola egiten duten ikusi eta ikasteko aukera izan zuten parte hartu zuten 32 lagunek. Euskaratik urrun eta euskaratik gertu bizi diren familien elkargune izateko sortu zuten *Auzoko Familiak* egitasmoa. Kanpotik etorritako familiei harrera egitea da egitasmoaren helburuetariko bat, euskara eta aniztasuna oinarri hartuta, eta berez sortzen ez diren bizikidetzarako espazioak ahalbidetzea.

Baserrira eta gaztandegia erakutsi zizkieten Mausitxakoek. "Gazta egiteko prozesua, hasieratik bukaerara azaldu ziguten eta egin genizkien galdera guztiak ere erantzun zizkiguten. Interesgarria bezain probetxuzkoa



izan zen goiza", esan dute irteerako antolatzaileek. Gazta dastaketarekin amaitu zuten bisita eta bazkalordurako jaitsi ziren herrigunera.

## Espazio publikoak berrantolatzeko plana herritarrekin batera diseinatu nahi du Mendaroko Udalak



**E**spazio publikoen erabilera eta herritarren beharrianak aztertu nahi ditu Mendaroko Udalak, eta horretarako, parte-hartze prozesua abiatu du. Erakunde publikoei ingurune osasungarri eta inklusiboak irudikatzen eta gauzatzen laguntzea helburu duen Projekta Urbes enpresakoek gidatuko dute parte-hartze prozesua, *Kaleak DenONAK* lelopean. Hasteko, lau bilera-saio antolatu dituzte prozesua aurkezteko, eta parte-hartzaileen aniztasuna bermatze aldera, behar edo interes bereziak izan ditzaketen taldeak bereiztu dituzte: gurasoen mahaia, maiatzaren 7an (15:30-16:30, ikastolan); emakumeen mahaia (17:30-18:30,

udaletxeko udalbatza aretoan), eta herritarren mahaia (18:30-20:00, udaletxeko udalbatza aretoan), eta maiatzaren 14rako adinekoen mahaia (10:30-12:30, jubilatuen egoitzan). Egun horretan bertan, baina arratsaldean, 18:30etatik 20:00etara, lau taldeak batzeko proposamena ere egin dute. Udaletxeko udalbatza aretoan egingo dute batzarra, diagnostikoa egin eta proposamenak jasotzeko. Proiektua diseinatzeko herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela azpimarratu du Enetz Ezenarro alkateak eta parte hartzera deitu ditu herritarrak. "Prozesu honek ez ditu hirigintzan adituak behar; Mendaron bizitzen arituak direnak bazik", zehaztu du.

### Udalekuetako ordutegia zabaldu du Mendaroko Udalak

Ekainaren 24tik uztailaren 19rako udalekuak antolatu ditu Mendaroko Udalak HH3tik LH6ra arteko ikasleentzat. Bi txanda izango dira aukeran, uztailaren 5a artekoa lehenengoa, eta uztailaren 8tik 19ra bigarrena, nahiz biak egiteko aukera ere eskaini duten, eta maiatzaren 5a arteko epea egongo da izena emateko, Udalaren webgunean (*mendaro.eus*) sartuta edota aurrez aurre, udaletxean, ludotekan eta liburutegian laga dituzten esku-orriak beteta. Albistea

estreinakoz zabaldu zutenetik, baina, izan da aldaketa bat. Hasieran, 10:00etatik 13:00etara arteko ordutegia izango zutela zabaldu zuten, baina herritarrek kontziliatzeko ezina argudiatuta egindako eskaerak aintzat hartuta, ordubete aurreratu dute umeak lagatzeko ordua. Beraz, 09:00etatik 13:00ak arteko ordutegia izango dute azkenean. Plazak mugatuak izango dira, eta kopurua gaudituko balitz, maiatzaren 6an zozketa egingo luketela aurreratu dute.

### Pintxo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak astebururako



Hamabigarren urtez, pintxo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak astebururako. Aitz Beltz, Lagun Betikoak, Ormola eta Uztargi tabernek parte hartuko dute lehiaketan, eta propio lehiaketarako sortutako mokadu goxoak salduko dituzte bihar eta etzi, honako ordutegian: goizez, 12:00etatik 15:00etara, eta arratsaldez, 19:00etatik 21:00etara. Biharko, Deiarar txarangaren kalejira ere lotu du Mendaroko Udalak. 19:00etatik 21:00etara arituko dira kalez kale.

## Zabaldutuzte Urruzuno auzoko aisialdi gunea eta ortuak

Egoibarko Udalak Urruzuno ingurunea egokitu du, eta lan horiek amaitu ostean erabiltzeko moduan daude aisialdi gunea eta ortuak. Zapatuan banatu zizkieten ortu publikoen erabiltzaileei giltzak. 28 udal baratza egokitu dituzte, eta erabiltzaileek araudiari buruzko formazio saioa egin zuten giltza jaso aurretik. Erabiltzaile bakoitzak armairu bat edukiko du denek erabiliko duten etxola baten barruan. Udalak emandako tresnak erabili ahal izango dituzte, eta biltegi handietan biltegiratutako euri-ura erabiltzen duten ureztatze-sistemak ere bai. Hondakin organikoetarako konpostagailu komunitario bat ere ipini dute. Debeakata dute ibilgailu pribatuekin barrutira sartzea, eta hilabete beroenetan ordutegi zabalagoa izango dute baratzeek. Arauek zehazten dute, halaber, erabiltzaileek osatutako zuzendaritza-batzorde bat eratu beharko dutela, eta hainbat arduraren izango dituzte: Udalarekin hartu-emanak, barnerolak kudeatzea, diruzaintza eta komunikazioa.



Baratzeen inguruan aisialdirako parkea egin dute. Iturria, ur putzua, umeentzako jolasak eta mahaia egokitu dituzte, besteak beste.

### Udarako margo tailerrak antolatu ditu Egurrek

Egur Arte Tailerrak udarako margo tailerrak antolatu ditu, HH4tik DBH2ra arteko ikasleentzat. Goizez izango dira, 09:30etik 12:30era, eta margoketari lotutako teknika desberdinak landuko dituzte. Ekainaren 24tik uztailaren 26rako txandak antolatu dituzte, asteka eta adin tarteka banatuta. Aste bakoitzeko prezioa

38 eurokoa da, baina uztailaren 25a jai-eguna denez, azken aste horrek 30 euroko prezioa dauka. Aste bat baino gehiago hartuta edo bi ume apuntatzeagatik %10eko deskontua egingo dute. Izena emateko azken eguna gaur da. Interesatuak 666 557 538 telefonora deitu behar dute.

### Argiztapena hobetuko dute Pilarreko eta Urazandiko zubien arteko pasabidean



Pilarreko eta Urazandiko zubien arteko oinezkoentzako pasabideak zazpi argi-foku dituzte egun, baina bikoiztu egingo dituzte inguru horretako argiztapena hobetze aldera. Kingkong-eko zubia berritzeko lanen bigarren fasean Urazandi auzorako sarbideetako bat izango da Udaltzaingo paretik hasten den oinezkoentzako bidea, ibaia gaudituko duten pasabidea jarri bitartean, beraz, ingurune hori egokitzeko lanak egingo dituzte.



## Bertan behera geratu da astebururako iragarrita zegoen magia jaialdia

**A**lain Zulaika *Niala* magoak magia jaialdia zeukan antolatuta asteburu honetarako, baina osasun arazoak medio, bertan behera laga behar izan ditu ekintza guztiak. Umeentzako magia tailerrak eta adin desberdinetako publikoarentzako magia ikuskizunak zeuzkan antolatuta, beste hainbat magoren laguntzarekin. Ahal bezain laster saiatuko dira jaialdirako eguna zehazten.



### Antzerkirako gune berria inauguratuko dute Elgoibarko Jubilatuen Biltokian

Elgoibarko Jubilatuen Biltokian antzerki tailerra jarri zuten martxan azaroan. Taupada antzerki taldekoen laguntzaz antzerkirako teknikak landu dituzte, eta horretarako propio atondu duten aretoa inauguratuko dute maiatzaren 2an. Antzerki tailerreko kideek jendaurrean egingo dute debuta, eta gero mokadua egingo dute. 19:00etan izango da, Jubilatuen Biltokian.



### Herri Urratserako autobusa antolatu dute Ikastolak eta Elgoibarko Izarrak

Maiatzaren 12an ospatuko da Herri Urrats jaia Senperen, eta bertara joateko autobusa

antolatu dute elkarlanean Elgoibar Ikastolak eta Elgoibarko Izarrak. 9:00etan irtengo da autobusa Txankakuako autobus geltokitik, eta itzulera 18:30etan izango da, Senperen. Autobusaren prezioa 10 eurokoa da, eta izena ematerakoan ordaindu beharko da, eskuz edo bizum bidez. Autobusa aurrera ateratzeko ekarpen ekonomikoa egin du Ikastolak, baina jasagarria izan dadin, gutxienez 40 lagunek eman beharko dute izena. Beraz, planaren berri inguruan ahalik eta gehien zabaltzeko eskatu dute sustatzaileek.

Izena emateko: Elgoibar Ikastolan, Elgoibarko Izarran edo on-line: <https://labur.eus/HerriUrratseraElgoibartik>

### Elgoibarko erraldoi eta buruhandien konpartsak jendea behar du

Erbuze erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten konpartsa jende bila dabil. Azkenaldian konpartsak hainbat kidek taldea laga dute, eta erraldoi, buruhandi eta zezenzikletak erabiltzeko jendea behar dute. 16 urte beteta eduki behar dira konpartsan parte hartu ahal izateko. Interesatuek Instagram bidez kontaktatu dezakete taldearekin *erbuze.elgoibar* profilean edo emailaz *elgoibarkoerraldoiak@gmail.com* helbidera idatzita.

# EAJ-K IRABAZI DU, BAINA ESERLEKUTAN PAREKO DU EH BILDU

 Ainara Argoitia

**28.819** botoko aldearekin, EAJk irabazi ditu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Handia izan da, baina, EH Bilduk eman duen jautzia, eta legebiltzarkide kopuruan, 27na berdinduta daude, atzerrian bizi direnen botoak zenbatu barik. Gaur dituzte boto horiek zenbatzekoak (83.000 bat ziren botoa emateko eskubidea zutenak, eta 8.219 lagunek eman zuten), baina ez du ematen lar aldatuko denik argazkia. Bototan gora eginda, domekan hirugarren indarra izan zen PSE-EEK izango du, beraz, gobernua osatzeko giltza. Hamabi eserleku eskuratu dituzte sozialistek. Gurera etorrita, EAJk irabazi du Elgoibarren, eta EH Bildu nagusitu da Mendaron, estreinakoz Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan.

EAJk irabazi ditu Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak Elgoibarren, nahiz eta orain arteko justuen izan. 2.162 boto eskuratu ditu, baina sekula ez bezain estu hartu du EH Bilduk. Izan ere, 2.149 boto eskuratu ditu ezker subiranistak, jeltzaleek baino hamahiru boto gutxiago. Biek egin dute bototan gora 2020ko hauteskundeekin alderatuta. 109 boto gehiago eskuratu ditu EAJk, eta 418 gehiago EH Bilduk, baina boto-portzentajea behera egin du bata, eta gora besteak. 2020ko hauteskundeetan, herritarrek emandako botoen %42,19 eskuratu zituen EAJk, eta ia hiru puntu gutxiago orain: %39,60. Kontrako bilakaera izan du EH Bilduk. Ezker subiranistak botoen %35,57 lortu zituen duela lau urteko hauteskundeetan, eta orain, berriz, ia hiru puntu gehiago: %39,63. Oro har eskualdean eta Gipuzkoan ere igarri da EH Bilduren jauzi hori. Debabarrenean, Elgoibarren eta Ermuan ez beste udalerrri guztietan irabazi du, eta Gipuzkoan, zazpi ez beste guztietan. Elgoibarrek, baina, jeltzaleen gotorleku izaten jarraitzen du.

## EMAITZAK ELGOIBAR



ehbildu

	2020	2024	2020	2024
KULTUR ETXEA	409	<b>426</b>	425	<b>497</b>
AITA AGIRRE	570	<b>567</b>	389	<b>418</b>
P. MUGURUZA	367	<b>418</b>	322	<b>458</b>
SAN ROKE	298	<b>315</b>	220	<b>305</b>
URAZANDI	178	<b>170</b>	154	<b>204</b>
ALTZOLA	29	<b>28</b>	45	<b>54</b>
IMH	202	<b>238</b>	176	<b>213</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.053</b>	<b>2.162</b>	<b>1.731</b>	<b>2.149</b>

## EMAITZAK MENDARO

ehbildu



	2020	2024	2020	2024
<b>UDALETXEA</b>	<b>271</b>	<b>392</b>	<b>351</b>	<b>343</b>

PSE-EE izan da Elgoibarren hirugarren alderdi bozkatuena, 626 botorekin. Alderdi sozialistak ere gora egin du bototan, 79 gehiago eskuratu dituelako 2020ko emaitzekin alderatuta, botoen %11,47 guztira. Gora egin du PPK ere, 40 bototan, eta 192rekin bera izan da laugarren indarra Elgoibarren, baina bai bata, zein besteak ez dute alde aipagarririk izan boto-portzentajea. Jaitiera handiena, berriz, Podemosek izan du, 156 boto galdu baititu.

Emaitzetan erreparatu dugu, baina aipatzekoa da, era berean, beste datu bat: parte-hartzea. Domekan, 8.546 lagunek eman zuten botoa Elgoibarren eta parte-hartzea duela lau urte baino zazpi bat puntu handiagoa izan zen, %64koa. Mendaron ere gora egin du parte-hartzeak sei puntuan, %56tik %62ra. 895 mendarorek eman zuten botoa domekan.

### EH Bildu garaile, Mendaron

EH Bilduk irabazi ditu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak Mendaron, estreinakoz, orain arte



BESTEAK

2020	2024	2020	2024	2020	2024	2020	2024	2020	2024	2020	2024
112	<b>142</b>	40	<b>40</b>	----	<b>24</b>	69	<b>22</b>	10	<b>8</b>	12	<b>11</b>
89	<b>106</b>	31	<b>28</b>	----	<b>13</b>	33	<b>9</b>	3	<b>11</b>	12	<b>12</b>
129	<b>131</b>	38	<b>43</b>	----	<b>21</b>	53	<b>28</b>	1	<b>10</b>	19	<b>15</b>
54	<b>62</b>	16	<b>36</b>	----	<b>9</b>	15	<b>10</b>	4	<b>1</b>	16	<b>9</b>
114	<b>110</b>	11	<b>21</b>	----	<b>13</b>	26	<b>10</b>	15	<b>12</b>	4	<b>5</b>
6	<b>10</b>	7	<b>9</b>	----	<b>1</b>	11	<b>5</b>	1	<b>2</b>	0	<b>1</b>
43	<b>65</b>	9	<b>15</b>	----	<b>19</b>	29	<b>6</b>	3	<b>2</b>	6	<b>4</b>
<b>547</b>	<b>626</b>	<b>152</b>	<b>192</b>	---	<b>100</b>	<b>246</b>	<b>90</b>	<b>37</b>	<b>46</b>	<b>69</b>	<b>57</b>



BESTEAK

2020	2024	2020	2024	2020	2024	2020	2024	2020	2024	2020	2024
54	<b>74</b>	---	<b>28</b>	12	<b>26</b>	55	<b>10</b>	5	<b>5</b>	17	<b>8</b>

## ELGOIBAR

URTEA	HAUTESLE-ERROLDA	EMANDAKO BOTUAK	ZURIAK	BALIOGABEAK	ABSTENTZIOA
2016	8.772	5.514	24	19	% 37,18
2020	8.621	4.881	31	15	% 43,38
<b>2024</b>	<b>8.546</b>	<b>5.490</b>	<b>43</b>	<b>31</b>	<b>% 35,76</b>

## MENDARO

URTEA	HAUTESLE-ERROLDA	EMANDAKO BOTUAK	ZURIAK	BALIOGABEAK	ABSTENTZIOA
2016	1.140	904	4	5	% 37,22
2020	1.401	765	11	15	% 43,90
<b>2024</b>	<b>1.443</b>	<b>895</b>	<b>5</b>	<b>4</b>	<b>% 37,98</b>

Udal Hauteskundeak baino ez dituelako irabazi izan [2011tik gaur arteko laurak]. Joan den maiatzetik, baina, izan diren hiru bozak irabazi ditu: Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak maiatzean, Espainiako Kongresurakoak uztailean, eta Eusko Legebiltzarrerakoak orain. 392 boto eskuratu ditu azkenekoan, duela lau urte baino 121 boto gehiago, eta EAJ izan da bigarren alderdi bozkatuena, 343 botorekin. Boto-portzentajera

etorrita, botoen %44 eskuratu ditu EH Bilduk, 2020an baino %9 gehiago, eta aldiz, EAJK zazpi puntuan egin du behera, %45,53tik %38,50era. PSE-EEK hirugarren indarra izaten jarraitzen du eta PPK laugarrena, aldaketa adierazgarririk izan gabe boto portzentajea. Sumarrek, berriz, 28 boto bildu ditu eta 10 Elkarrekin Podemosek, zeinak 45 boto galdu dituen duela lau urteko hauteskundeekin alderatuta.

**DEBABARRENA**

Debabarrean EH Bilduk eskuratu ditu boto gehien, EAJ izan da bigarren indarra eta PSE-EE hirugarrena. EHBilduk bailarako bost herritan irabazi du: Mallabin, Eibarren, Soraluzen, Mendaron, Deban eta Mutriku. EAJk, berriz, bitan: Ermuan eta Elgoibarren.

**ERMUA**

- EAJ-PNV: 2.081
- PSOE: 1.837
- EH BILDU: 1.804
- PP: 865
- SUMAR: 431
- ELKARREKIN: 219
- VOX: 179

**DEBA**

- EH BILDU: 1.292
- EAJ-PNV: 1.203
- PSOE: 200
- SUMAR: 57
- ELKARREKIN: 45
- PP: 42
- VOX: 19

**MUTRIKU**

- EH BILDU: 1.337
- EAJ-PNV: 988
- PSOE: 91
- PP: 64
- SUMAR: 48
- ELKARREKIN: 32
- VOX: 7

**SORALUZE**


- EH BILDU: 768
- EAJ-PNV: 520
- PSOE: 259
- PP: 68
- ELKARREKIN: 33
- SUMAR: 29
- VOX: 12

**MALLABIA**

- EH BILDU: 324
- EAJ-PNV: 224
- PSOE: 37
- ELKARREKIN: 11
- PP: 11
- SUMAR: 11
- VOX: 2

**EIBAR**

- EH BILDU: 4.145
- EAJ-PNV: 3.806
- PSOE: 2.948
- PP: 736
- SUMAR: 374
- ELKARREKIN: 297
- VOX: 170



**EAE-KO DATUAK**

EAJk irabazi ditu Legebiltzarreko hauteskundeak eta koalizio gobernuari eutsi ahal izango dio PSE-EErekin

EH Bilduk emaitza historikoak lortuta ere, EAJk irabazi ditu Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak, ia 28.8019 botoko aldearekin (2,64 puntu). Jokoan dauden 75 eserlekuetatik 27na eskuratu dituzte EAJk eta EH Bilduk, eta beraz, inoizko abertzaleena izango da legebiltzarra. PSE-EEk eta PPK ere gora egin dute eta inkestek ziotenaren kontra VOXek eutsi egin dio zuen legebiltzarkideari. Ezker konfederalak izan du jaitsierarik handiena, eta Sumarrek bakarrik lortu du ordezkaria. Emaitzok kontuan hartuta, EAJk eta PSE-EEk koalizio gobernuari eutsi ahal izango diote, bien artean gehiengo osoa dutelako.

**DATUAK**

- Errolda: 1.712.301
- Botoak: 1.070.467 (%62,52)
- Abstentzioa: 641.834 (%37,48)
- Zuriak: 10.462 (%0,98)
- Baliogabeak: 7.835 (%0,73)



**EMAITZAK: 75 JARLEKU**

- EAJ-PNV: 27 (↓4), 370.554 boto (%35,22)
- EH Bildu: 27 (↑6), 341.735 boto (%32,48)
- PSE-EE: 12 (↑2), 149.660 boto (%14,22)
- PP: 7 (↑1), 97.149 boto (%9,23)
- SUMAR: 1, 35.092 boto (%3,34)
- ELKARREKIN: 0 (↓6), 23.679 boto (%2,25)
- VOX: 1 (=), 21.396 boto (%2,03)

# ILUNBERRI ACADEMIA 2024ko HITZALDIAK

## KARLISTALDIAK: XIX. MENDEKO GERRA ZIBILAK... ETA GEHIAGO

Aita Agirre kulturgunean, 19:00etan

**Maiatzak 2, osteguna**

"Karliten oldarraldia eta ondoko gerra (1833-1839)"

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA

**Maiatzak 8, asteazkena**

"Bigarren karlistaldia(1872-1876)"

MIKEL ALBERDI

**Irailak 26, osteguna**

"Agosti Xaho: Lehen karlistaldiaren kontaketa"

XABIER ZABALZA



*Ibon 24-21*



ILUNBERRRI  
ACADEMIA



EUSKO  
HERRIA



EUSKO  
GUBERAK

# ELGOIBARKO MUSIKARIEN ERRITMORA

✍️ 📷 Ainhoa Andonegi



EME Eguna antolatu zuen Elgoibarko Musikarien Elkarteak joan zen zapatarako. Eguerditik hasi eta goizaldeko ordu txikiak arte luzatu zuten jaiak, eta Maalan batu ziren ikusleek Elgoibarko musikarien erritmora egin zuten dantza. Bederatzi talde igo ziren oholtzara, eta estilo desberdinetako musikaz gozatzeko aukera izan zuen publikoak. Talde guztien saioak amaitu zirenean EMEdideak txandaka eta elkarren artean nahastuta igo ziren oholtzara, talde ezagunen kanten bertsoiak jotzeko. Gogotik gozatu zuten musikariek oholtzan, eta baita ikusleek ere parkean. Gaeko giro hotza bikain berotu zuten guztien artean. Argazki gehiago: [barren.eus](http://barren.eus)



*Bikustik*



*Gabi eta Alfon*



*Xut*



*Unnamed*



*Txoteko Ezpata*



*DJ Agote*



*Kitziki*



*Jaizy's Tyros*



*Mutilated Soul*



*EMEkideen bertsio saioa*

# GALGA AL DA EUSKARA?

Herritarrek hala erabakita, orain arteko abertzaleena izango da Eusko Legebiltzarra, jokoan zeuden 75 eserlekuetatik 54 eskuratu dituztelako indar abertzaleek. Hala ere, jendeurrean egin dituzten agerraldietan oso gutxitan entzun ditugu euskararen arazoez berbetan. Euskara galga zaio abertzaletasunari?. Gai hori izan zuten, hain justu ere, eztabaidagai Elgoibarren martitzenean, Elgoibarko Izarrak eta Udalak 'Zergatik eta zertarako euskaldun?' programaren baitan antolatu zuten 'Euskara eta abertzaleak, bidegurutze berean?' izeneko saioan.

 Ainara Argoitia



**E**skutik al datoz euskara eta abertzaletasuna?. Abertzaletasunaren diskurtsoa pizgarri ala galga da euskararentzat? Euskarak ematen al du botorik? Zer harreman behar da euskararen eta estatugintzaren artean? Galdera horiei erantzun zieten Jose Manuel Odriozola soziolinguistak eta Julen Zabalo EHUKo Soziologia eta Gizarte Langintzako irakasleak martitzenean. Ainhoa Larrañaga abokatu eta Mondragon Unibertsitateko irakasleak gidatu zuen saioa, baina hein handi batean, bi iritzi kontrajarri nabarmendu ziren hasiera-hasieratik; bi ikuskera abertzaletasunaz; bi ikuskera naziogintza edo estatugintza ulertzeko moduz. Batetik, Zabalorena, zeinak defenditzen duen posible dela Euskal Herri abertzale bat izatea, hizkuntzari -euskarari- lehenetasunezko lekua eman barik, eta bestetik, Odriozolarena, zeinak arrazoi bakarra ikusten duen gaur eta hemen abertzale izateko: gure ondare edo kapital linguistikoa, kultural eta identitarioa babesteko eta bultzatzeko izatea. Edozelan ere, biak ala biak bat etorri ziren esatean azkeneko hauteskundeotan euskararen arazoak oso lausoa baino ez dituztela aipatu indar abertzaleek, eta boto-emaile askori euskarak azkurea eragingo dien beldur, edo nahiago bada, euskaratik urrun egon daitezkeen

perfilak erakartzeko, kanpainako fokotik kanpo laga dutela euskara; alegia, isildu dituztela euskararen aldeko mezu garbiak.

"Euskararen arazoez ez dute ia arretarik jaso indar abertzaleen aldetik, eta alderdi espainolen aldetik euskara modu bidegabean tratatua izan denean ere, politikari abertzaleek ia ez dute erantzun", aipatu zuen Odriozolak. Haren ustez, euskarari, euskal kulturari, identitate euskaldunari eta Euskal Herriari "bizkarra emanda" bizi dira abertzaleak oro har, euskaldunek eta Euskal Herriak duten "arazo existentzial nagusia" euskara eta euskalduntasuna direnean, "pertsonek eta herri gisa euskaldun egiten gaituena euskara delako".

Odriozolak garbi ikusten du politikari abertzaleentzat euskaldunen ongizatea eta zoriona ez daudela lotuta nazio euskaldunaren egoerarekin edo justizia nazionalarekin; ez daudela lotuta, alegia, hizkuntza, identitate eta kultura eskubideekin, baizik eta justizia sozioekonomikoarekin, eta "etikoki zalantzagarria" iritzen dio Katalunia edo Euskal Herria moduko nazio garatueta nazionalismo sozioekonomikoa lehenestea. "Justizia sozialak zergatik izan behar ditu muga nazionalak? Muga nazionalak bukatzen diren puntuan bukatzen



al dira eskubide sozialak? Ez da zilegia. Etikoki onartezina da". Bere ustez, nazionalismoaren balio moral eta politikorik handiena gizateariaren aniztasun linguistikoa, kulturala eta identitarioa zaintzean datza.

Alderdi abertzaleek euskararen arazoak lauso aurkeztu izanari bere logika ikusi dio Zabalok, eta nazionalismoa ulertzeko moduarekin lotzen du. Mugimendu politiko moduan defenditzen du abertzaletasuna, helburu politiko batzuk lortzearekin, eta ez euskara edo identitate euskalduna salbatzearekin, edo ez behintzat horrekin bakarrik. Bigarren hori euskararen aldeko mugimenduaren egitekoa ikusten du gehiago eta uste du "alderdiei horrenbeste konpromiso eskatu ordez" mugimendu horrek autonomia handiagoa hartu beharko lukeela euskara indartzeko balioko duen politika berriak martxan jartzeko.

"Mundu globalizatuan bizi gara, eta aniztasuna gero eta handiagoa da. Hori dena kudeatzea gero eta zailagoa da eta abertzaletasunaren helburu nagusia euskal estatua edo estatu independentea lortzea izanda, politikariek erreparatu behar diote errealitate horri. Konbentzitu egin behar dute jendea euskal estatua sortzeko, eta oso ondo ulertzen dut diskurtsoa gauza batzuetan apaltzea, euskararekin interesatua ez dagoena ere erakartzeko", esan zuen Zabalok. Naziometroaren urteroko neurketan bildutako erantzunak ekarri

zitzen, gogoratzeko independentismoaren kontra agertzen diren askok oso bestelako erantzuna ematen dutela gizarte zerbitzu hobek berमतuta egonez gero euskal estatuaren alde egingo ote luketen galdetzen zaienean. Horri lotuta, euskal nazionalismoaren definizioa bera ere aldatzen ari dela nabarmendu zuen Zabalok logika hori arrazoitzeko. Hala, orain, erabakitzeko eskubideaz hitz egiten dela gogoratu zuen eta eskubide horren baitan herritarrei ematen zaiela -edo ez-estatua eraikitze ahalmena. "Orain estatuak ez dira eraikitzen aurretik eraikita dagoen nazioaren arabera, baizik eta erreferendum batean herritarrek esaten dutenaren arabera".

Odriozolak ez du sinisten euskal abertzaleen euskal estatuan eta ezta haien independentzia ereduan ere: "Euskal Herri deseuskaldundu batek zer irabaziko luke euskal estatu baten jabe izanda, euskalduntasunari dagokionez? Irlandan lortu zuten independentzia, baina nortasun nazional gaelikoa galdu zuten". Haren ustez, independentzia behar dugu nazio euskalduna eraikitze, baina euskaraz funtzionatzen ez duen estatu batek ez digu balio. Euskal estatua sortzeari barik euskal nazioa eraikitzeari ikusten dio lehentasuna Odriozolak eta dio euskalduntasunean bizitzeko baldintzak sortzeko independentzia ez dela helburua, baizik eta bidea.



## IXA RODRIGUEZ

Boxeo irakaslea

✍ Asier Orbea

Hamar borrokaldiz osatutako boxeo jaialdia egingo dute Olaizaga kiroldegian, maiatzaren 4an. Sorabox taldeko Ixa Rodriguez dago ekimenaren atzean, 2019ra arte boxeolari profesionala izandako soraluzearra. Boxeoa zabaldu eta ezagutzera emateko lanetan dihardu orain. Asmo horretan, jendaurreko boxeo entrenamendua egingo dute gaur (19:00) Maalako parkean. Boxeo jaialdirako sarrerak salgai daude Malape tabernan eta Olaizagako harreran.

*“Lehen pausoak ematen ari diren borrokalaria gazteen arteko borrokaldi politak ikusiko ditugu”*

**Deba bailaran boxeorekiko zaletasuna berpizten zabilzate azken urteotan Sorabox taldeak. Soraluzen, Bergaran edo Arrasaten antolatu dituzue boxeo jaialdiak azken boladan, eta Elgoibarrera ere ekarriko duzue boxeoa maiatzaren 4an.**

Bai, halaxe da. Boxeorako afizioa zabaldu nahi dugu bailaran, eta azkenaldian emakumezkoen boxeoa ari gara, eragin nahian. Hamar borrokaldiko boxeo jaialdia antolatzea lortu dugu eta emakumezkoenak izango dira horietako lau. Estimua handia diot Elgoibarri, nire kirol ibilbideko lehen urratsak hemen eman nituelako, 18 urte nituela. Boxeoa egin nuen azken-urreko borrokaldia ere Elgoibarren jokatu nuen 2019an, Oksana Romanova ukrainarraren aurka, eta urtebetez egon nintzen gero boxeoa irakasten hemen.

**Zer harrera eduki dute orain arte antolatu dituzuen boxeo jaialdiek?**

Gero eta hobeto ari gara. Arrasaten esaterako boom modukoa ari da bizitzen boxeoa. 90eko hamarkadara arte bazegoen afizioa han, baina Galan anaiak haserretu ziren eta akabo boxeoa!



Berpiztu moduan egin da orain eta Arrasatebox taldea ere sortu dugu han. Boxeo gosea dagoela sumatzen dut.

**Zer nolako borrokaldiak ikusiko ditugu Elgoibarren?**

Lehen pausoak ematen ari diren boxeolari gazteen arteko borrokaldi politak ikusteko aukera izango da, baina baita eskarmentu handiagoko boxeolarien artekoak ere. Soraboxeko boxeolariak izango dira erdiak eta aurkariak Nafarroatik etorriko dira. Euskadiko txapelketa irabazi berri duten bi neska igoko dira ringera, Oihane Gravalos eta Raquel Casas, eta baita Euskadiko txapelkunorde gelditu den Mochine El Kabouri Mou soraluzearra ere. Esan beharra daukat Udaleko Berdintasun Sailaren eta Udal Kirol Patronatuaren laguntzarik gabe Soraboxek bakarrik ezingo lukeela horrelako boxeo jaialdi bat antolatu. Dirutza da, denek kobratzen baitute: boxeolariak, entrenatzaileak, epaileak, medikuek, hizlariak, aseguruak... eta ringa bera jartzea da garestiena, Logroñotik ekartzen baitut.

### **Emakumeak boxeora gerturatzeko ahaleginean ari zarela diozu.**

Bai, baina sekulako ahalegina eskatzen du. Oso zaila da emakumezkoen borrokaldiak antolatzea eta horietan parte hartzeko prest dauden emakumeak topatzea, baina tematuta nago ni eta saiatzen jarraituko dut. Sorabox taldean 100 bat lagun dabilta eta emakumeak %30a dira. Borroketatik kanpo, jende asko gozatzera etortzen da taldera; kirol jarduera berri bat probatzeko hasten dira gehienak. Eskolak hartzera datorrena kirola egitera dator, ondo pasatzera, ikastera eta egunerokoa tarte batez ahaztera. Eta hori dena minik hartu gabe. Hamar urte dira klaseak ematen ditudala eta inoiz ez da ezer larririk gertatu. Emakumeentzat, norbere buruan ziurtasun gehiago edukitzeko kirol egokia dela ere iruditzen zait. Beste aldetik, ring batera igo nahi dutenak daude. Horiek lehentasun handia eman behar diote boxeolari, ondo prestatu behar dute gauzak behar den moduan egiteko, eta horrek denbora eta dedikazio handia eskatzen du.

### **Boxeoan entrenatzeak onura asko dituela esan ei da.**

Bai, kirol oso konpletoa da boxeoa, arlo desberdinak lantzen dituelako: indarra, bizkortasuna, koordinazioa, erresistentzia, ..eta baita memoria ere, kolpe serieak memorizatu behar direlako.

### **Boxeo erakustaldia egingo duzue gaur Maalan.**

Bai, datorren asteko boxeo jaialdirako giroa berotze aldera jendaurreko entrenamendu saioa

egingo dugu Maalako parkean, 19:00etatik aurrera. Boxeolarien pisaketa ere jendaurrean egingo dugu, maiatzaren 4an, 17:00etan. Malape taberna barruan egingo dugu eguraldi txarra baldin badago, barruko arropan pisatzen baitira boxeolariak, edo Maalako parkean bestela. Ordu erdi inguruko saioa izango da eta ikusgarria izango da.

### **Pandemian erabaki zenuen boxeoa uztea... Igarri duzu hutsunea?**

Elgoibarko borrokaldiaren ostean Bilbon lehiatu nintzen azkenengoz, 2019ko abenduan. Besoa apurtu nuen, ebakuntza egin zidaten, pandemia etorri zen, ...eta kitto! derrigor laga behar izan nuen boxeoa. Beti diot pandemiagatik boxeolari on asko galdu ditugula, belaunaldi oso bat esango nuke. Nik neuk eman beharrekoak emanda laga nuen boxeoa, 39 urterekin. Pozik nago lortu nuenarekin, aseta. 2015ean izan nintzen Espainiako txapelkun eta urtebete lehenago zilarra jantzi nuen. Eta Euskadiko Txapelketa lautan irabazi nuen. Gipuzkoako estreinako boxeolari profesionala izan naiz, eta Euskadikoa ere bai, hemen jaiotakoak kontuan hartuta. Bidea zabaltzeaz gainera, profesioaletan ez nuen borrokaldirik galdu. Tituluak eta garaipenak alde batera lagata, ondo irten nintzen boxeotik, burua ondo, hainbeste kolpe jasotzea ez baita ona. Eta, garrantzitsuena dena: boxeoz bititzea lortu dut. Orain, pasioz bizi dudana kirol hau bultzatzea eta zabaltzea da nire asmoa, besteei ezagutzera ematea, hemen inguruan galduta zegoelako kirol hau. Neuk ekarri nuen, hutsetik hasita.



*Elgoibarko jaialdian lehiatuko diren boxeolariak.*

## Elgoibarren amaituko da Emakumezkoen Euskal Herriko Itzuliko lehenengo etapa

**G**asteiztik abiatuko da Emakumezkoen Euskal Herriko Itzulia maiatzaren 10ean, eta Elgoibarren izango du helmuga estreinako etapak, Pedro Migel Urruzuno kalean. Antolatzaileek aurreikusten dute txirrindulariak 13:18tik 13:42ra bitartean iritsiko direla helmugara. Baina hemugan bakarrik ez, etaparen erdialdera ere ikusiko ditugu txirrindulariak Elgoibartik pasatzen, Azkarateko mendatea igo aurretik. Edizio honetako etaparik luzeena -140 kilometro-eta desnibel metatu handiena izango duen etapa ere izango da aurrenekoa. Mendate puntuagarriak hiru baino ez dira izango, baina igoera eta jaitsiera ugari izango ditu. Antolatzaileen ustetan, egun aproposa izango da Olaetako mendatean bertan edo horren aurretik tropela zatitu eta ihesaldiak gertatzeko. Azken kilometroek etengabe egingo dute gora sasiordeka jarraitu batean, harik eta Elgoibarren helmugara iritsi arte. Kalebarren plazan egingo dute sari banaketa ekitaldia. Bigarren etapa Basaurin hasi eta bukatuko da; eta Donostian hasi eta bukatuko da hirugarren eta azken etapa. Demi Vollering herbeheretarrek irabazi zuen Euskal Herriko Itzuliaren estreinako edizioa, 2022an, eta Marlen Reusser suitzarrak 2023an.

Elgoibarren etapa amaituko den egunerako askotariko ekitaldiak antolatu dituzte herriko hainbat eragilek elkarlanean. Hasteko,



Elgoibar Sasoian taldekoek saio irekia egingo dute 10:00etatik aurrera Kalegoen Plazan eta Lekuederren. Horren ostean, dantza urbanoen saioa egongo da, eta baita umeentzako herri kirolak eta jolasak ere. Eguerdian haur eta nerabeentzako jantokia egongo da Maalako parkean. Etapa amaitu osterako ere prestatu dituzte ekimenak. 15:00etatik 19:00etara Looping Bike 360 eta mendi bizikletako simuladore bat egongo da Maalan, eta euskal dantza erakustaldia Kalegoenen, 19:00etan. Dantzaldiaren ostean, Patxangoi elektrotxarangak girotuko ditu kaleak. Gauean, 22:00etatik aurrera, kontzertuak emango dituzte Mugi Panderoa erromeria taldeak eta DJ Latxirongak, Maalan.



### Gazteen txirrindulari lasterketa jokatu dute bihar Mendaron

Benjaminen, alebinen eta infantilen Txirrindulari Lasterketa jokatu dute zapatuan Mendaroko Erramone industrialdean. Lasterketa industrialdera mugatuko da, duten adinagatik ezin dutelako errepidera irten. 16:30ean hasiko da Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak antolatu duen lasterketa.

## Eskubaloia plazara aterako du Sanlok domekan

25. urteurrena ospatzen diharduen Sanlo kirol taldeak eskubaloia plazara ateratzeko ekitaldia antolatu du domekarako, apirilaren 26rako. 2012tik 2015era bitartean jaiotako neska-mutilak eskubaloian arituko dira Kalegoen plazan (eguraldi txarra egingo balu, IMH kiroldegian), 11:00etatik aurrera. Ildo beretik, gaztetxoak eskubaloira erakartzeko ekimena ere antolatu du Sanlok. 2012 eta 2016. urte bitartean jaiotakoek eskubaloia probatzeko aukera izango dute maiatzaren 8tik ekainaren 12ra artean. Horretarako eguaztenero 17:00etan egingo dituzten entrenamenduetara agertu beharko dute Olaizaga kiroldegira. Izena emateko deitu 688 735 446 zenbakira edo idatzi mezua [sanlolatxo@gmail.com](mailto:sanolatxo@gmail.com) helbidera.



### Laboral Kutxa txirrindulari taldea Tourrera gonbidatu dute



Laboral Kutxak beste pauso bat eman du Kontinental mailatik UCI World Tourrera igotzeko bidean, eta lehenengoz, Frantziako Tourrean izango da, lasterketaren beraren gonbidapena jaso baitu. Sei talde gonbidatu ditu antolakuntzak, ASOk, eta horietako bat da euskal taldea. Tourra abuztuaren 12tik 18ra jokatu dute, eta Rotterdamen hasi eta Alpe d'Huez mendate mitikoan amaituko da proba. Ion Lazkano mendaroarra da Laboral Kutxako zuzendaria eta Aitor Galdos ermuarra managerra, eta pozarren agertu dira biak. Lazkanok iazko urrian aldizkari honi emandako elkarrizketan aitortu zuen Tourra jokatzeko zutela amets setako bat, eta bete dute.

### Astlehenean zabalduko dute Udako Kirol Campuserako izena emateko epea

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Udako Kirol Campusa antolatu du ekainaren 24tik uztailaren 29rako, 7 eta 15 urte bitarteko haurrei zuzenduta (2012-2017 urte bitartean jaiotakoak). Astlehenean, apirilaren 29an, zabalduko dute izena emateko epea eta maiatzaren 28a izango da azken eguna. Interesdunek Olaizaga kiroldegian bertan edo [olaizagaharrera@hotmail.es](mailto:olaizagaharrera@hotmail.es) posta elektronikora idatziz eman ahal izango dute izena. Patronatuko bazkideek 109 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 119,75 euro.



## Reino de Najera binakako pilota txapelketa irabazi du Iker Izagirrek Apeztegiarekin batera

**P**romesa mailako Euskal Herriko eta Errioxako pilotaririk onetsuenak lehiatu dira azken bi hilabeteetan Reino de Najera binakako txapelketan, eta horien artean izan da Lapke taldeko Iker Izagirre elgoibartarra, Oberena taldeko Ugaitz Apeztegia II. arekin batera.

Finalerdietan Muruak eta Figeroak osatutako bikotea kanporau zuten, 22-15eko emaitzarekin eta joan den domekan jokatu zuten final handia Najerako pilotalekuan, 300 pilotazalaren aurrean. Cestau eta Lacalle izan zituzten aurkari eta 22-11 irabazi zuten Izagirrek eta Apeztegiak. Rey Don Garcia Lanbide Heziketako ikastetxeko ikasleek egurrarekin eginiko frontoi txiki batzuk jaso zituzten saritzat irabazleek. Horrez gain, Errioxako pilotari profesionalek ere hartu



zuten parte sari banaketa ekitaldian, Javier Zabalak eta Dario Gomezek.

### 130 neska-mutilek parte hartu dute Igeriketa Egunean



Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatuta Igeriketa Eguna egin zuten zapatuan Olaizaga kiroldagian, eta 130 bat umek hartu zuten parte. Neska-mutilek proba desberdinetan hartu zuten parte, bakoitzaren mailaren arabera. Era berean, Igeriketa Eskolan dabilzan neska-mutilek erakustaldi bat ere egin zuten.

### Asola Berri taldeko Sergio Rodriguezek irabazi du Eibarko tiraldia

Gipuzkoako Hiru-Txirlo bola-joko txapelketaren seigarren jaurtialdia jokatu zuten zapatuan Eibarko Asola Berriko bolatokian, eta etxeko bolariak gailendu ziren 82 parte-hartzaileen artean. Seina txirlo bota zituzten lau lagunek, eta euren artean, Sergio Rodriguez eibartarrak eskuratu zuen lehenengo postua, Floreagako Gorka Etxaniz, Asola Berriko Garikoitz Rodriguez eta San Miguelgo Anjel Ibarluzearen aurretik. Une honetan Floreagako Santos Muñoz da nagusi txapelketaren sailkapen orokorrean, Asola Berriko Garikoitz Rodriguez bi txirloko aldea aterata. San Migel A taldeko Unai Loiola da sailkapen nagusiko lehen elgoibartarra, laugarren postuan.



## Errenta aitortpena euskaraz egitera animatu dute Elgoibarko eta Mendaroko udalek

**E**lgoibarko eta Soroluzeko udalekin batera, *Errenta aitortpena euskaraz* izeneko kanpaina jarri du martxan Elgoibarko Udalak, eta gauza bera egin du Mendaroko Udalak, UEMAren bitartez. Soroluzeko Udalarekin batera hasitako kanpainaren barruan, Elgoibarko Udalak 5.500 esku-orri banatu ditu etxeetan, errenta aitortpena euskaraz egiteko dauden aukeren berri emateko. Horrez gain, herriko banku erakundeei eta aholkularitza etxeei ere bidaliko die esku-orri bera, haien bezeroen artean euskararen erabilera sustatu dezaten Foru Ogasunarekiko harremanetan, eta udal bulegoetan ere jarriko dute eskuragai.

Errenta euskaraz egiten duten herritarren kopurua gorantz egiten ari da urtez urte, baina

hala ere, errealitate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik urrun gaude oraindik, eta horretan eragin nahi dute udalek. Elgoibarko bizilagunek egindako 6.183 errenta aitortpenetatik 1.172 egin ziren euskaraz: %18,90. 2008ko datuekin alderatuz, hamar puntu egin da, beraz, gora, baina datu soziolinguistikoek bide ematen dute pentsatzera oraindik euskaldun askok erderaz egiten dutela errenta aitortpena. Antzekoa da Mendaroko kasua. Mendaron, 1.040 errenta aitortpenetatik 259 egin ziren euskaraz.

Apirilaren 3an hasi zen errenta aitortpena. Urtero legez, hiru bide daude errenta aitortpena egiteko: autolikidazio proposamena, mekanizatua eta Internet bidezkoa, eta hiruretan hautatu daiteke euskara.

### Euskal musikaren eszenaz aritu da Olatz Salvador musikaria, Lilan, genero berdintasunaren ikuspuntutik

Gauza jakina da emakumeei espazio publikoa ukatu izan zaiela, eta gaur egun ere, oholtzak ez direla beti espazio seguru denontzat. Eta hain justu ere, gai horren inguruko analisisia egiteko eskatu zieten zapatuan Olatz Salvador kantautore eta musikariari (Donostia, 1990), Lilan. Inazio Bereziartua musika eskolaren eta Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailaren eskutik etorri zen Elgoibarrera Salvador (Donostia, 1990) eta musika eskolako abesbatza gazteko eta Kitziki musika taldeko neskek parte hartu zuten saioan.



Salvadorrek euskal musikaren eszenari buruzko analisi kritikoa egin zuen, genero ikuspegia ardatz hartuta, eta besteak beste, desoreka horren zergatiaz, emakume gisa bititako trabez eta egindako hausnarketez, eta etorkizunerako erronkez mintzatu zen.

### Famientzako erromeria antolatu dute Elgoibarren maiatzaren 3rako

Famientzako erromeria antolatu du Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika Sailak, Udal Ludotekarekin, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolarekin eta Haritz Euskal Dantzari Taldearekin batera. Azkueko berdegunean egingo dute erromeria, maiatzaren 3an, 17:30etik aurrera.



## Karlistaldien inguruko hiru hitzaldiko zikloa antolatu dute Elgoibarren

**K**arlistaldiek berebiziko garrantzia izan dute egun ezagutzen dugun Euskal Herriaren egituraketan. Hainbat adituren iritziz, euskal nortasun modernoaren sorrera gertakari historiko hauetan kokatu behar da. Hala ere, eta gure egungo errealitatea ulertzeko ezinbestekoak badira ere, karlistaldien fenomeno historikoari buruz ez da askorik ikertu azken hogeita hamar bat urte arte, eta hain justu ere, horrexegatik antolatu dute Illunberri Achademiak eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak *Karlistaldiak: XIX. mendeko gerra zibilak... eta gehiago* izeneko hitzaldi-zikloa, Elgoibarko Udalaren babesarekin.

Joseba Agirreazkuenaga EHUKo katedradun eta Historia Garaikidean adituak emango duen *Karlisten oldarraldia eta ondoko gerra (1833-1839)* izenburuko hitzaldiarekin hasiko dute zikloa, maiatzaren 2an (eguna). Oldarraldiaren aurrekariak ezagutzera eman eta 1833ko erasoaz, porrotaz eta Oñati-Bergarako bake ituna izenpetu artekoan Euskal Herrian izan zen gerra giroaz arituko da Agirreazkuenaga. Maiatzaren 8rako (eguztena) lotu dute zikloko bigarren hitzaldia eta *Bigarren karlistaldia (1872-1876): Foru sistemaren azken urteak* jarri diote izenburutzat. Mikel Alberdi historialari eta Zumalakarregi Artxibo Museoko arduradunak emango du, eta 1868ko iraultzaren ondorioz Isabel II.a tronutik bota zutenean karlistek boterera iristeko ikusi zuten aukeraz



arituko da. Era berean, lehenengo karlistaldiarekiko antzekotasun eta desberdintasunak ere aztertuko ditu eta foraltasunaren amaiera deskribatu.

Irailerako utzi dute azkeneko hitzaldia. Xabier Zabaltza historialari eta saiakera egileak emango du, irailaren 26an (osteguna) eta *Agosti Xaho: Lehen karlistaldiaren kontaketa* izango du izenburutzat. Zabaltzak Agosti Xaho idazle zuberuarraren bizitza eta ideologia aztertuko ditu, Euskal Herriaz eta karlismoaz zuen iritzian azpimarra jarrita. Era berean, Zumalakarregiz eraiki den irudian izan zuen eraginean ere jarriko du arreta.

Hiru hitzaldiak Aita Agirre kulturgunean izango dira, eta 19:00etan hasiko dira.



### 'Slapstik' ikuskizuna emango du Ekain pailazoak, gaur, barikua, Elgoibarren

Ekain Iburguren (Azpeitia, 1996) pailazoaren emanaldia antolatu du Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiak Sailak gaurko, Udalarekin lankidetzan. Gure Zirkutik izango dute askok ezagun Iburguren, hantxe aritzen baita malabarista eta pailazo gisa, baina ibilbide luzea du aurretik ere. Gaur, Herri eskolako gimnasioan arituko da, 17:30etik aurrera.



## Hilaren 8ra arte luzatu dute greba Herriko Antzokiko langileek

**H**erriko Antzokiko langileak greban daude, eta hasiera batean apirilaren 24an amaitzeko asmoa bazuten ere, protesta maiatzaren 8ra arte luzatzea erabaki dute. Ondorioz, bertan behera geratu dira ordura arte Herriko Antzokian egitekoak ziren ikuskizun eta zine emanaldiak.

Aisilan XXI enpresarentzako lan egiten dute Herriko Antzokiko langileek, eta besteak beste, hitza bete dezala eta soldatak eguneratzea eskatu diote.

### Iberdrolaren 'Euskal Kultura' argazki lehiaketako finalerako aukeratu dituzte Joxerra Cabreraren bi argazki



10.000 argazki jaso dituzte Cultura Inquietak Iberdrolaren babesarekin antolatzen duen *Euskal Kultura* argazki lehiaketan eta horietatik ehun argazki apartatu dituzte antolatzaileek erakusketa bat osatzeko. Tartean daude Joxerra Cabreraren bi, euskal dantza emanaldi batekoak biak. Erakusketa maiatzaren 15ean zabalduko dute, Bilbon Doña Casilda parkean, eta ekainaren 17ra arte egongo da bisitatzeko aukera. Ondoren, uda sasoi betean, Donostiako Alderdi Eder parkean eta Gasteizko Santa Barbara plazan ere erakutsiko dute.

Erakusketarako aukeratu dizkioten argazki biak finalerako ere aukeratu ditu lehiaketako epaimahaiak. Bost argazki aurkeztu zituen Cabrerak lehiaketarako, hori baitzen argazkilari bakoitzak gehienez aurkeztu zezakeen kopurua, eta gaur jakingo du finalean saritu duten edo ez.

## 'Ibili alai, ipuinetan blai' ipuin kontaketa saioa antolatu du Mendaroko Udal Liburutegiak gaurko



Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, ipuin kontaketa saioa antolatu du gaur arratsalderako Mendaroko Udal Liburutegiak Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako hirugarren mailara artekoentzat. Izaskun Mujika izango da ipuin kontalaria. Mujika antzezle, narratzaile eta Inguma antzerki taldeko sortzaileetako bat da eta 2000. urtean hasi zuen bere ibilbidea narrazio munduan. Liburutegian izango da saioa, 17:45ean.

### Gazte mailako auresku txapelketa nagusiko finalerako sailkatu dira Uxue Cabrera eta Unax Ansola dantzariak



Ezin finago ari dira Elgoibarko dantzari gazteak Gazte Mailako VI. Auresku Txapelketan, baina badira bi besteen gaineratik nabarmendu direnak. Izan ere, finalerako sailkatu diren dantzarien zerrendaren berri eman du asteon Euskal Dantzarien Biltzarrak eta zerrenda horretan ageri dira Uxue Cabrera eta Unax Ansola elgoibartarrak. Legazpiko azokan jokatuko du finala Cabrerak, maiatzaren 18an, 17:00etan, D sailekoetan. Unax Ansolak, berriz, maiatzaren 25ean jokatu du B sailekoen finala, Errenteriako Niessen kulturgunean, 17:00etatik aurrera.

**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko nahiz garbiketa lanak egiteko prest nago. Asteburuetan edo etxeko langile moduan aritzeko prest. Erizain titulua eta titulu soziosanitarioak ditut. Esperientzia handia. **643 505 662**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **634 196 236**

Adinekoak zaintzen nahiz garbiketa lanetan arituko nintzateke. **602 152 685 / 602 362 919**

Adinekoak zaintzeko nahiz garbiketa lanak egiteko prest nago. Berehala lanean hasteko moduan. **602 152 685**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Asteburuetan ere bai. **641 756 213**

Adinekoak zaintzeko prest, etxeko langile moduan. **688 652 050**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta lanerako baimena ditut. Gaeuz edo arratsalde. **655 094 780**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta lanerako baimena ditut. Gaeuz edo arratsalde. **642 578 943**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, gauetan edo etxeko langile moduan. **632 229 972**

Garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat. **632 721 342**

**ETXEBIZITZAK**

Elgoibarren logela bat hartuko nuke alokairuan. **610 198 012**

**IBILGAILUAK**

2018ko Volkswagen Crafter furgoneta salgai. 4 atekoa, 210.000 km. Diesela. Egoera oso onean. **689 619 845**

**GARAJEAK**

Marradun garajea erosi edo alokatuko nuke Iñiguez Karkizao kalean. **688 616 714**

Garaje itxia salgai Jausoro plazan. Sarrera erraza dauka. 18m2 ditu. **626 591 658**

**BESTELAKOAK**

500 m<sup>2</sup> eta 5-6 hektarea artean dituen lursailaren bila nabil, zuhaitzak izan ditzake edo ez berdin zaigu. **621 074 553**


**OSPAKIZUNAK**

1964an jaiotako bazkaria, ekainaren 22an, Sigma jatetxean. 13:00etan elkartuko dira Foruen plazan argazkia ateratzeko. Ondoren, luntxa, eta 14:30ean bazkaria. 70 euro sartu behar dira ekainaren 8rako Laboral Kutxan. ES28 3035 0007 26 0071144881.

1959an jaiotako kinto ospakizuna ekainaren 8an. Marem tabernan batuko dira 13:00etan eta Sigman bazkalduko dute 14:30ean. 70 euro ordaindu behar dira maiatzaren 15erako. Laboral Kutxa: ES35 3035 0007 27 0071144803

  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Jakin nahi nuke etxejabe batek esaten badu ez diotela batzar baterako deialdirik bidali, nola egiaztatu daitekeen benetan bilerara deitua izan dela.</b></p> <p>Zitaziorik ezaren alegazioa egitate negatiboa da, eta esanahi bereko egitate positibo baten bidez frogatu daiteke. Deialdia egin dela frogatzeko moduari dagokionez, legeak ez du ezartzen komunikazioa modu fedemailean egin behar denik. Baina ezerk ez du eragozten komunitateak horretara jotzea, deialdia jaso ez duten jabeak dauden komunitateetan. Hala ere, notario-bidea edo burofaxa bidaltzea oso garestiak dira komunitate gehienentzat. Eta praktikan, beste metodo batzuk erabil daitezke, fedemaileak izan gabe, baldin eta deialdia entregatu izanaren frogatu aurreikusia ahalbidetzen bada. Kasurik ohikoena posta arruntez bidaltzea da. Jabeak alegatu dezake ez duela inolako komunikaziorik jaso postaz, baina, frogatu hori erabat egiaztatzea ezinezkoa denez, auzitegiek presuntzioetara jo ohi dute, hala nola gainerako jabeekideek jaso izana, erkidegoan erabiltzen den ohiko sistema izatea jabeen kezkarik gabe, edo jabeak aldizka jasotzea komunitatearen komunikazioak inolako kezkarik gabe.</p> <p><b>Ondorioa: irtenbide bera aplikatuko da jabeak ukatzen badu akta, komunitateko kontabilitate-balantzea edo beste edozein komunikazio ez jaso izana</b></p> <p><b>GOAR</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, [barren@elgoibarkoizarra](mailto:barren@elgoibarkoizarra).  
eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Martin**, bihar 7 urte beteko dituzulako. Amama Mariasun, Milene eta familiakoen partez.



Zorionak, **Aia!** 3 urte handi zurekin! Askoi maite zaitugu. Muxu handi bat Liharren partetik.



Zorionak, **Eneko!** 10 urte gure mutilak. Etxeko denon partez.



Zorionak **Nahia, Luken** eta **Jakes**, Elgoibarko familia osoaren partetik.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**UDAKO GOZOGINTZA IKASTAROAK INGELESEZ**

- 8tik 12 urtera
- 4ko taldeak
- notiboarekin
- astebeteko ikastaroak
- uztailan 9:00-13:00
- deitu maiatzaren 17a baino lehen

Lucy  
681639284




## KONTSULTATEGIA

*Zer gertatzen da hortzekin eta hortzoiekin haurdunaldian?*

Haurdunaldian izan ohi dituzte emakumeek ahoan arazo gehien. Batez ere txantxarra eta hortzoiaren hanturak izaten dituzte. Horien aurka tratamendu egokia egin ezean, hortzen galera eragin dezaketen arazoak sortzen dira. Batez ere haurdunaldiko lehen hiruhilekoan izaten diren goragale eta okada tipikoek eta dietan izaten diren aldaketek ahoko osasunari eragiten diote, ahoko pH-a desorekatzen dutelako, eta horrek hortzen desmineralizatzea eragin ohi duelako.

Pazienteak ahoko higijene egokia izan badu haurdunaldiaren aurretik eta bitartean, aldiaren behin dentistarenera joan baldin bada, oso litekeena da aurretik aipatutako arazoek ez eragitea.

Haurdunaldia planifikatu aurretik, hortzetako arazo guztiak konpontzea da gomendagarriena gerora ariskuak gubitzeko. Baina hori ez bada zure kasua, dentistarekin hitzordua hartu eta zenbait neurri hartzea duzu onena.



### ALDAZ HORTZ KLINIKA

San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar  
[iyd@dentalaldaz.com](mailto:iyd@dentalaldaz.com)

**943 366 377**

## 26 BARIKUA

**17:30** Ekain Ibareguren pailazoaren 'Slapstik' ikuskizuna. Atxutxiamaiak antolatuta, Urazandiko parkean.

**17:45** 'Ibili alai, ipuinetan blai' ipuin kontaketa saioa, Mendaron. Izaskun Mujika antzezle, narratzaile eta Inguma antzerki taldeko kideak emango du, liburutegian.

**18:30** Kafe tertulia, 7. arteari buruz. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.

## 27 ZAPATUA

**Azken zapatuko feria**

**9:00 - 14:00** Baserriko produktuen eta Artalde Artisau Taldearen produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

**11:00** Txosna zabalduko du Karakate Bizirik taldeak.

**12:00 - 14:00** Umeentzako tailerrak, Kalebarren plazan.

**Eguerditik aurrera**, ganadu feria, Aita Agirren.

**16:30** Benjamin, alebin eta infantil mailako txirrindulari lasterketa. Mendaron, Erramone industrialdean. Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta.

**18:30** Luzianoren erakusketa ikusteko azken eguna. Kultur Etxean.

## 28 DOMEKA

**09:00** Erlora irteera. CATT Morkaiko taldeak antolatuta, 100 urte, 100 mendi egitasmoaren barruan. Kalegoen plazatik.

**09:30** Erlora familia irteera. Morkaikok eta herriko ikastetxeek antolatuta, 100 urte, 100 mendi egitasmoaren barruan. Mintxetan batuko dira.

**11:00** Eskubaloia plazara ekimena. Sanloren eskutik, Kalegoen plazan.

**10:00** Bisita gidatua: Dolmenen ibilbidea. Euskaraz izango da. Erreserba egiteko: 657 794 677  
[info@begi-bistan.com](mailto:info@begi-bistan.com)

## 30 MARTITZENA

**17:00** Paperezko hegoak gazteentzako irakurketa kluba. Peio Añorgaren 'Gerlari handia' liburua landuko dute. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

## 2 EGUENA

**18:30** 'Karlisten oldarraldia eta ondoko gerra 1833-1839' hitzaldia, Joseba Agirreazkuenagarekin. Ilunberri Achademiak antolatuta, Aita Agirreko areto nagusian.

**19:00** Antzerki tailerraren inaugurazioa. Elgoibarko Jubilatuen biltokian. Segidan, luntxa egongo da.

## 3 BARIKUA

**11:00** Santa Kurutz Eguneko meza, San Rokeko ermitan. Segidan, salda eta txorizoa banatuko dituzte hango elkartean.

**17:30** Erromeria familian, Azkueko berdegunean. Ludotekak, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak eta Haritz EDTk antolatuta.



Jon Aranao  
Guillermo Torres

Elgoibar  
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Asteleheneetik ostirdera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Ilargipoindegi zerbitzua daukagu.  
Deitu ordua hartzeko.



PINTURA ETA DEKORAZIOA  
CORDON VILARCHAO

[cordonvilarchao@telefonica.net](mailto:cordonvilarchao@telefonica.net)  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 986 162

## Zinea

Herriko Antzokiko langileen greba dela-eta, asteburu honetan ez da zine emanaldirik egongo.

### 2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00  
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00  
 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

#### APIRILA

26 BARIKUA	■ Ibañez
27 ZAPATUA	Garitaonandia
28 DOMEKA	Garitaonandia
29 ASTELEHENA	Arriola
30 MARTITZENA	■ Fernandez

#### MAIATZA

1 EGUAZTENA	Arriola
2 EGUENA	■ Oruesagasti
3 BARIKUA	Barrenetxea

2024 urte guztian, gauzez:  
 Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)  
 943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
---	--	--

## EXPRESS ESKAINTZAK!

**RH2077 X-FORCE 9.60  
 ROWENTA XURGAGAILUA,  
 ANIMAL CARE**

**Flex teknologia:  
 errendimenduaren  
 eta erosotasunaren arteko  
 konbinazio perfektua.**

**199 €**

- Eskuila motorduna
- Kablerik gabe
- 45 minutuko autonomia
- 0,4 litroko edukiera
- Animal Care osagarriak



**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## MAIATZAK 3, OSTIRALA AZKUE AUZOKO ZELAIAN

### ERROMERIA FAMILIAN

17:30ean JOLASGUNEA

18:30ean, Musika eta Dantza Eskolako  
 ikasleen erromeria

Ondoren, INGUMA

(Dantzak ikasteko eta dantzatzeko gogoz  
 daudenentzako erromeria gidatua)

Bertan afaltzeko aukera (norberak dakarrena)

\*Afaltzeko lurrean jartzeko mantak ekartzea gomendatzen dugu






Jose Ramon Cabrera





## Angel Yudego Albisu

2024ko apirilaren 19an hil zen, 88 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



V. URTEURRENA

## Gloria Aranguren Urkidi

*"Beraseta"*

2019ko apirilaren 28an hil zen, 81 urte zituela.  
Haren oroimenez V. urteurreneko meza izango da, domekan,  
apirilaren 28an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren  
eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

**Bost urte pasatu dira  
aldatu zitzaigula bizitza.  
Baina oraindik gure artean  
egunero zabitza.**

Etxekoak

# ETXE BERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA



943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

## Parte-hartzaileak

- Alire Estetika
- Aramburu Bibi-denda
- Arauri Lurrindegia
- Atelier Oihana
- Barrutia Optika
- Bizkor Bizikletak
- Casa Astigarraga
- Cristina Garcia Estetika eta Terapia Naturalak
- Darama
- Doña Mercedes
- Ecenarro Lentzeria
- Farmazabal
- Federopticos Ikus
- Ferpi Jantzi-denda
- G&M Jantzi-denda
- Garate Jantzi-denda
- Garbiñe Estetika
- Goiara Lurrindegia
- Ipintza Margoak
- Iria Moda
- Iriondo Altzariak
- Iriondo Kirolak
- Iza'k lle-apaindegia
- Kala Loradenda
- Karkizano
- Kima Bioestetika
- La Bermeana Arraindegia
- Lagunak Kolbri-denda
- Lanbroa
- Lete
- Maria Urizar lle-apaindegia
- Martin Lopez Carburantes
- Meraki lle-apaindegia
- Nalai Oinetakoak
- Nu-van
- Olaia Martinez Estetika Zentroa
- Ongi Iturgintza eta Diseinua
- Ortopedia Itziar Sarasketa
- Pitxintxu
- Roteta Elektrizitatea
- Sara Jantzi-denda
- Txillarre Eko-denda
- Uzuri Optika
- Vinoteca Julio Bueno Ardotegia
- Zazpi Informatika
- Zeleta Barazkiak
- Zure Alde Abokatuak

# TXANKAKUA

## Ginkana

# 5.000€

Elgoibarren | Comprar en Elgoibar  
erosteak saria du | tiene premio

1.000€-ko lehen sari bat eta 200€-ko hogeit hamar sari,  
eroketa-baleetan emango dira. Zozketa maiatzaren 31n.

Maiatzaren 2tik 29ra!

*Animatu eta hartu parte!*

